



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 3a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—11-26/PRC-00001. Lege proposamena, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea xede duena. EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-26/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talentua erakarri eta atxikitzeke plan integral bat susta dezan. Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztu du (7. or.).

—11-26/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxieneko aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-26/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (10. or.).

—11-26/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).

—11-26/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten du pentsioak errebalorizatzeko aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (13. or.).

- 11-26/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gardentasunaren Atarian hilero ezagutaraz ditzan Foruzaingoak Nafarroan atxilotutakoek kopuruari eta jatorriari buruzko datuak. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (14. or.).
- 11-26/MOC-00020. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua”. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak eta Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (15. or.).
- 11-26/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Minbiziaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).
- 11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

A s a i l a :
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2026ko otsailaren 9ko 12:00ak arte luzatzea Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea. Foru-lege proiektua 2026ko urtarrilaren 16ko 3. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

11-26/PRC-00001. Lege proposamena, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea xede duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu eta Geroa Bai talde parlamentarioek urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea xede duen foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 241. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea xede duen foru-lege proposamena, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege proposamena, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea xede duena

HITZAURREA

Gutxieneko soldata ezartzea neurri babeslea da, negoziazio kolektiboz gutxieneko erreferentziarik ez duten edo erreferentzia hori txikiagoa duten jarduera guztietarako ezartzen baita soldata. Gutxieneko soldatak, gainera, soldaten nahikotasun-maila jakin bat ekarri behar du, bizitzaren erreproduktioari eusteko modukoa. Bestalde, gutxieneko soldata, politika sozial eta ekonomikorako tresna den heinean, aberastasuna banatzeko eta kohesio sozialerako mekanismoa ere bada, eta pobrezia-atalasetik behera dauden pertsonen kopurua murrizten du, eta legezko lan-baldintzak baino hobeak dituzten sektoreetan soldaten goranzko negoziazioa bultzatzen.

Gutxieneko soldata legez finkatzea da gutxieneko soldatak ezartzeko mekanismo nagusia. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) datuen arabera, kide diren herrialdeen % 90ek modu horretan egiten dute. Lurralde bakoitzak bere errealitate sozial eta ekonomikora egokitutako irizpideen arabera ezartzen du gutxieneko soldata. Gure ekonomian industrializazio-maila handiagoa dagoenez, langile bakoitzeko produktibitatea Espainiako Estatu altuenetakoa da, ELGaren datuen arabera, eta pertsona bakoitzak sortzen duen aberastasunaren ehunekoa ere handiagoa da.

Produktu eta zerbitzu asko, edo etxebizitzaren prezioak, Estatu gehienak baino garestiagoak dira Nafarroan. Azken bost urteotan, Nafarroako

5.000 biztanletik gorako udalerrietan salerosketako etxebizitzaren prezioa % 26 igo da, eta alokairuko etxebizitzarena, berriz, % 46. Hori horrela, Nafarroa seigarren postuan dago etxebizitza garestienak dituzten erkidegoen artean, bereziki tentsionatuta dauden erkidegoen atzetik (Madril, Katalunia, Balearrak, Kanariak eta EAE).

Gutxieneko soldata nabarmen igotzeak eragina izanen luke Nafarroako 80.000 langile ingururengan –zerbitzuen sektorean lan egiten dutenak eta lan baldintza prekarioagoak dituztenak gehienak–. Alde horretatik, neurri horrek eragin bereziki positiboa izanen luke emakumeengan, migratutako pertsonengan, gazteengan eta aniztasun funtzionala duten pertsonengan. Hau da, gutxieneko soldata igotzea lagungarria izanen litzateke generoaren araberako soldata-arrakala amaiarazteko, bai eta beste soldata-arrakala batzuk ere, hala nola jatorriaren, adinaren edo aniztasun funtzionalaren araberakoak.

Nafarroako gizarte-, kultura-, sindikatu- eta politika-sarea beste lurraldeetako ezberdina da, bai osaerari bai ereduari dagokienez. Nafarroako LGSak bere gizarteak behin eta berriz –hauteskunde sindikaletan, esaterako– erakusten duen borondate berezituari erantzun behar dio. Europako zenbait herrialdeetako hileko LGSak hauek izan ziren 2024an: Alemanian, 2.054 euro; Frantzian, 1.766,9 euro; Britainia Handian, 2.230,9 euro; Belgikan, 2.070,5 euro; Luxenburgon, 2.570,9 euro; Herbehereetan, 2.134,1 euro; Irlandan, 2.146,3 euro, eta Islandian, 2.493,2 euro. Aldiz, Espainiar estatuko LGSa 1.323 eurokoa izan zen (urteko 12 ordainsaritan), Euskal Herriaren antzeko egitura ekonomikoa duten herrialdeetatik nabarmen urrun, bai eta Euskal Herriko langileen beharretatik urrun ere.

LGSa lurraldean bertan erabakitzeak gizarte-kohesioa hobetzea ahalbidetzen du. Arrazoi formalak zirela medio bere garaian onetsia izan ez zen legegintzako herri-ekimen hau bultzatu zuten elkar-teentzat, horixe da lan-harremanen eta babes sozialeko esparru propioa izatearen zentzua. Gure esparru propioari autonomia handiagoa emateak berekin ekarriko luke sortutako aberastasunaren banaketa bidezkoagoa izatea, eta gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonen kopurua murrizten lagunduko luke. Azken finean, gizarte justuago eta inklusiboago bat izateko aukera emanen luke.

Gai horiek guztiak kontuan hartuta, proposatzen da Estatuko lurralde guztiek beren beharretara egokitutako gutxieneko legezko soldata arautu ahal izatea, eta, beraz, autonomia-erkidegoek beren gutxieneko soldata ezarri ahal izatea Langileen Estatutua aldatuz. Horretarako, lege-proposamen hau izapi-

detzen da Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean: autonomia-erkidegoetako batzarrak lege-proiektu bat onartzea eskatzen ahaliko diote Gobernuari, edo lege-proposamen bat bidaltzen ahaliko diote Kongresuko Mahaiari; batzarraren hiru ordezkari jartzen ahaliko dituzte ganbera horren aurrean gehenez lege-proposamena defendatzeko.

Lege-aldaketa hori legegintzako herri-ekimen (HEL) batek bultzatuta dator, zeinak Nafarroako Parlamentua interpelatu baitzuen prozedura has zezan eta Langileen Estatutua alda zedin, eta, horrela, hala erabakitzen duten autonomia-erkidego guztiek beren LGS propioa, beren beharretara egokitua, ezartzeko modua izan dezaten.

Artikulu bakarra. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritako LGSaren araubidea aldatzea.

Aldatu egiten da 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, honako xedapen hauei jarraikiz:

Bat. Aldatu egingen da Langileen Estatutuaren 27. artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

27. artikulua. Lanbide arteko gutxieneko soldata.

1. Gobernuak, ordezkaritza handieneko sindikatu- eta enpresaburu-elkarteei kontsulta egin ondoren, urtero finkatuko du lanbide arteko gutxieneko soldata, honako hauek kontuan hartuta:

a) Kontsumo-prezioen indizea.

b) Estatuan lortutako batez besteko produktibitatea.

c) Lanaren partaidetza zenbatean gehitu den Estatuko errentan.

d) Ekonomiaren egoera orokorra.

e) Errenta, eskura dauden zerbitzu publikoak, bizitzaren kostua eta antzeko beste adierazle batzuk

Gainera, sei hilean behingo berrikuspena ezarriko da prezioen indize horri buruzko aurreikuspenak betetzen ez diren kasuetarako.

Lanbide arteko gutxieneko soldataren berrikuspeneak ez du eraginik izanen lanbide-soldaten egiturari, ez eta zenbatekoan ere, baldin eta horiek, oro har eta urteko zenbaketan, hura baino handiagoak badira.

2. Lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa, urtekoa zein hilekoa, enbargaezina da. Aurreko hori zehazteko orduan, kontuan hartuko dira bai sortzapen-aldia bai zenbatzeko modua, aparteko

ordainsarien hainbanaketa kontuan hartu ala ez, eta kasu bakoitzean ateratzen den zenbatekoa enbargaezina dela bermatuko da. Zehazki, hileko soldatarekin batera aparteko haborokin edo ordainsairen bat jasotzen bada, enbargaezintasun-muga lanbide arteko hileko gutxieneko soldataren zenbatekoaren bikoitza izanen da, eta jasotako hileko soldatan aparteko ordainsari edo haborokinen zati proportzionala sartuta egonez gero, enbargaezintasun-muga izanen da lanbide arteko gutxieneko soldataren urteko zenbatekoa hamabi hilabeteren artean hainbanatuta ateratzen den zenbatekoa.

3. Autonomia-erkidegoek beren lurraldean aplikatzekoa den LGS bat ezartzen ahalko dute, eta, horretarako, kontuan hartu beharko dute artikulua

honen 1. apartatuan eta lege honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Bi. Xedapen gehigarri hau eransten zaio Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginari:

Xedapen gehigarria. Legearen 27. artikulua 1. eta 3. apartatuak Espainiako Konstituzioaren 150.1 artikuluan ezarritako estatu-eskumenaren indarrez eman dira, eta 1. apartatuko aurreikuspenak izanen dira erkidegoen eskumena gauzatzeko esparruaren printzipio, oinarri eta jarraibide.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunetara hartuko du indarra”.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita talentua erakarri eta atxikitzeke plan integral bat susta dezan

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita talentua erakarri eta atxikitzeke plan integral bat susta dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Nafarroako egoera kezkarria bizi du enpresa-lehiakortasunaren eta lan-merkatuaren arloan. Nafarroako enpresek, tamaina edo sektorea edozein dela ere, gero eta zailtasun handiagoak dituzte lanpostuak, kualifikatuak nahiz ez-kualifikatuak, betetzeko, eta horrek hazkunde ekonomikoa eragozten du eta arriskuan jartzen du enpresa txiki eta ertain askoren bideragarritasuna.

Langile-falta horri egiturazko beste arazo batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola gehiegizko burokrazia, mugakide diren erkidegoetan baino kostu fiskal handiagoak, lan-absentismoaren igotzea eta funtsezko azpiegitura-urritasuna, bereziki aireko, trenbideko eta bideko konektibitatean.

Jaiotza-tasa txikiak eta biztanleriaren zahartzeak areagotu egiten dute agertoki hori; aldiz, talentua eta inbertsioa erakartzeko lurraldeen arteko lehia gero eta handiagoa da. Nafarroak ezin du desabantailan geratu antzeko errenta-maila duten beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, horiek inbertsioak eta enplegua erakartzen ari baitira politika arinago eta lehiakorragoei esker.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak neurri erabakigarriak hartzea berehala ekoizpen-sarea indartzeko, enplegua sortzen laguntzeko eta Nafarroak lan egiteko, inbertitzeko eta ekiteko komunitate erakargarria izaten jarraituko duela bermatzeko.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Talentua erakartzeko eta atxikitzeke plan integral bat susta dezan, langile kualifikatuak eta ez-kualifikatuak lanean jartzea errazteko neurri espezifikoak jasoko dituen, bai eta enpresen benetako beharretara egokitutako prestakuntza-politika aktiboak ere.

2. Burokrazia administratiboan modu eraginkorrean murriztu dezan, izapideak sinplifikatuz eta enpresa-jarduerak sortzeko eta handitzeko lizenziak eta baimenak emateko epeak laburtuz.

3. Nafarroako zerga-eskumenak erabat aprobetxa ditzan, Nafarroako enpresak mugakide diren autonomia-erkidegoetako enpresen baldintza berdinetan lehiatzen ahal direla bermatzeko, inbertsioari

eta enpleguari kalte eginen dieten zerga-desabantailak saihestuz.

4. Laneko absentismoaren kudeaketa berrikus eta hobetu dezan, gizarte-eragileekin lankidetzan, kontingentzia arruntengatikoa bajekin lotutako prozedurak eta enpresa txiki eta ertainetan duten eragina bereziki ebaluatuz.

5. Saltoki txikiei eta enpresa txiki eta ertainei berariaz lagun diezaien, belaunaldi-erleboea, digitalizazioa eta negozio horien bideragarritasun ekonomikoa errazteko neurrien bidez, funtsezkoak baitira enplegurako eta gizarte-kohesiorako.

6. Azpiegitura estrategikoetako inbertsioa indartu dezan, errepide-sarea hobetuz, abiadura handiko tren erabakitasunez bultzatuz eta Nafarroa Europako zentro ekonomiko nagusiekin konektatuko duten nazioarteko aireko konexioak berreskuratzeke lan eginez.

7. Arau-garapenak, industriari buruzko etorkizuneko legeak barne, Nafarroako industria beste autonomia-erkidego batzuekiko desabantaila-egoeran jartzen ez duela bermatu dezan, haren lehiakortasunari kalte egiten dioten eskakizun gehigarriak saihestuz.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 27an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premia-tzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxieneko aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premia-tzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxieneko aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, otsailaren 5eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila mozio honen betetzearen jarraipena.

Zioen azalpena

Joan den asteazkenean, urtarrilak 28, Nafarroako Jauregiko Joaquín Lizarraga aretoan, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren azken osoko bilkura egin zen. Biler horretan, Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen ebaluazioa eta Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Zuzentzailearen egoeraz jardun ziren, besteak beste.

Biler horretan, Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariak adierazi zuten kezkatuta zeudela garapenerako lankidetzaren politika publikoaren finantzaketaren egoera orokorragatik.

Munduak gaur egun bizi duen testuinguru geopolitikoan, garapenerako lankidetzako politika publikoak funtsezkoak dira gizateriaren gizarte-kohesioa indartzeko. "Lehen" eta "hirugarren" munduko biztanleen artean dauden egiturazko arrakalak direla-eta, munduko biztanle askok bizi-egoera latzak eta dramatikoak bizi dituzte, gaur egun dinamika belizistek eta klima-aldaketak area-gotuta.

1970ean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Errenta Nazional Gordinaren % 0,7ko nazioarteko konpromisoa ezarri zuen Garapenerako Laguntza Ofizialerako (GLO), herrialde garatuek portzentaje hori herrialde pobretuekiko lankidetzara bideratzeko. Gure herrialdeak, Espainiak, konpromiso politiko hori ofizialki hartu zuen 1991n.

Politika publiko horien finantzaketa ezin da geratu ministerio edo departamentu jakin baten konpromisoaren edo aurrekontua egotearen mende. Politika publiko horien finantzaketak gobernu guztien eta erakunde publiko guztien konpromiso politikoa eta finantza-babesa izan behar ditu.

Nafarroan, non IV. Plan Zuzentzailea taxutzen ari baita, % 0,7ko finantza-helburua ez betetzea aringarririk gabeko porrot politikoa da. Hala ere, une honetan, IV. Gida Zuzentzaile horretan sartu beharreko gutxieneko aurrekontu-esparru edo -bide bat negoziatzen ari gara, % 0,7ko helburua lortu gabe, politika publiko horiek duintzeko eta Nafarroako Gobernuak gai horretan hartutako konpromisoa berresteko gutxienez. Hartutako konpromiso politikoak nabarmen betetzen ez diren testuinguru batean, eta Nafarroako lankidetzaren ordezkarien jarra arduratsu eta ulerkorra kontuan hartuta, gutxieneko aurrekontu-esparru edo -bide hori Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkari-tzarekin adostu behar da. Gutxieneko aurrekontu-esparru edo -bide adostu bat aurreikusten ez duen beste edozein egoera porrot larria izanen da Nafarroako

roako Gobernuak garapenerako lankidetzarako darabiltzan politika publikoetarako.

Gure erkidegoan, Nafarroako Gobernuak garapenerako lankidetzarako darabiltzan politika publiko finantzaketa ezin da Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren borondatare edo aurrekontua egotera mugatu. Departamentu horrek, berez, aurrekontu-erronka handiak ditu Nafarroako herritarrei aukera-eta helburu-berdintasuna bermatzeko, eta ez zaio egotzi behar politika publiko estrategikoak eta zeharkakoak finantzatzeko erantzukizun osoa. Nafarroako Gobernuak garapenerako lankidetzaren arloan dauzkan konpromiso politikoen finantzaketa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren politika guztien egiturazko finantzaketatik bereizi behar da, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak izan behar du bermatzen duena politika publiko horiek finantzaketa duina dutela urtero.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkari-ekin adostutako gutxieneko aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentua premiatzen du urtero berma dezan garapenerako lankidetzaren arloko konpromiso politikoen finantzaketa finalista, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren politika guztien egiturazko finantzaketatik bereizita.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroan gidabaimenaren azterketa egiteko itxaron-zerrenda luzeak egotea ez da arazo berria, nahiz eta azkenaldian zerrenda horiek muga guztiak hausten ari diren; halatan, hainbat hilabeteko atzerapena gertatzen da azterketa teorikoa eta, bereziki, praktikoa egiteko.

Arazoaren jatorria, funtsean, Nafarroako Trafiko Buruzagitza Probintzian aztertzaileak eta langile nahikorik ez egotea da. Nafarroako Autoeskolen Elkarte Probintzialak (APANA) egoera "aurrekaririk gabeko kolapso" gisa deskribatzen du, eta salatzen du 8.200 pertsona baino gehiago daudela itxarote-zerrendan gidabaimena lortu ahal izateko. 5.588 azterketa praktikoa egiteko

zain daude, teorikoa gaindituta; 2.100, zati teorikoa egiteko zain, eta beste 600, berriz, ibilgailu astunei, motorrei eta atoei eskatzen zaien pista-proba egiteko zain.

Itxaron-denbora hiru eta sei hilabete bitartekoa da jada, eta egoera larriagotu egin da joan den udatik bi aztertzaile gutxiago daudelako. Hori dela eta, itxaron-zerrendan dauden pertsona askok, gidabaimena lortzeko premia larria izateagatik, beste erkidego batzuetara joan behar izan dute azterketa egiteko.

Egoera hori jasanezina da inondik ere, eta Gobernu Zentralak arazoa konpontzeko duen eraginkortasunik ezari egotzi behar zaio, Estatuari baitagokio gai horren gaineko eskumena.

Izan ere, Estatuko zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzean eta Estatuko Administrazioak ibilgailu motordunen trafikoaren eta zirkulazioaren arloan zituen eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzean, ez zen aurrekusi gidabaimenaren aztertzaileak eskualdatzea, ez eta gidabaimena emateko, izapidetzeko eta kudeatzeko zerbitzuak eskualdatzea ere (eskualdaketa apirilaren 4ko 252/2023 Errege Dekretuaren bidez egin zen, eta apirilaren 8ko 277/2025 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen geroago).

Ezinbestekoa da epe laburrerako irtenbideak ematea, baina egiturazko konponbideak ere eman beharra dago, egoera epe laburrera lehengoratzeko eta etorkizunean berriz gerta ez dadin, eta horretarako irtenbiderik onena arlo horretako eskumena eskualdatzea da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premia-tzen du, bitartean eta berehala, behar diren neurriak har ditzan trafikoko aztertzaileen

Nafarroako plantilla indartzeko, zerbitzuaren eta herritarren benetako beharretara egokitutako jarduneko aztertzaile-kopurua bermatuta.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-26/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premia-tzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetu dezan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premia-tzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetzea premia-tzen duen honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Eliza Katolikoak jabetza-titulurik aurkeztu gabe ondasun higiezinak immatrikulatzea ahalbidetu zuen araudi zehatza, funtsean, 1946ko otsailaren 8ko Dekretu bidez onartutako Hipoteka Legearen 206. artikulua izan zen, 1947ko otsailaren 14ko Dekretu bidez onartutako haren Erregelamendua-ren 304. artikuluekin lotuta. Xedapen horiek Eliza Katolikoaren elizbarrutiak funtzionario publikoekin parekatu zituzten erregistro-ondorioetarako, eta aukera eman zien ondasunak administrazio bidez immatrikulatzeko, administrazio publikoen baldintza berberetan. Araudi hori diktadura frankistan promulgatu zen.

Hainbat hamarkadatan, Espainiako ordenamendu juridikoak aukera eman zion Eliza Katolikoari ondasun higiezinak immatrikulatzeko, gainerako pertsona fisiko edo juridikoen eskura ez zegoen salbuespenezko prozedura baten bidez, eta Estatuko botere publiko gisa tratatu zuen. Bereziki, 1946ko Hipoteka Legearen erreformak eta, argiago, 1998an egindako erregelamendualdaketak zabaldu egin zituzten erregistroan inskriba zitezkeen ondasunak, eta kultu-ondasunak sartu ziren, ustezko administrazio-ziurtagiri baten bidez, jabari-titulu idatziaren beharrik gabe.

Pribilegio historiko horrek desberdintasun-egoera sortu du legearen aurrean, Konstituzioaren printzipio hauen aurkakoa: Estatuaren akonfesionaltasuna (Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua), legearen aurreko berdintasuna (14. artikulua) eta segurtasun juridikoa (9.3 artikulua). Gainera, tradizionalki jabari publikokotzat edo erabilera eta aprobetxamendu komunokotzat jo izan diren milaka ondasun immatrikulatzea ekarri du, hala nola plazak, baselizak, hilerriak, parrokia-etxeak edo balio historiko eta kultural handiko monumentuak.

2015ean egindako Hipoteka Legearen erreformak salbuespenezko prozedura horri amaiera eman zion arren, aldaketa horrek ez zuen atzeraraginezko ondoriorik izan, eta, beraz, Espainiako Konstituzioaren aurkako araudi argi, bidegabe eta diskriminatzaile baten pean egindako immatrikulazioak bermatu zituen, ustez.

2021ean, Estatuko Gobernuak Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda partzial bat argitaratu zuen, eta de facto aitortu zuen munta handiko arazo juridiko eta ondare-arazo bat zegoela. Hala ere, gaur egun ez zaio modu integrarean heldu egoera hori ahalbidetu zuen lege-esparruaren berrikuspenari, eta ez da mekanismo eraginkorrik antolatu bidegabe immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeko.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da erakundeek ekimen politiko argi bat bultzatzea, Espainiako Konstituzioa indarrean jarri zenetik immatrikulazio horiek ahalbidetu zituen Estatuko araudiaren berariazko deuseztasuna eskatzeko, bai eta ondasunak ondare publikora edo haien titular legitimoetara itzultzeko neurriak hartzeko ere.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Espainiako Gobernuak premiatzea lege bat susta dezan Hipoteka Legearen 206. artikulua deuseztasuna deklaratzeko Espainiako Konstituzioa indarrean jarri zenetik, bai eta, Eliza Katolikoarentzat

bakarriz, hari jarraikiz xedatu zen 1947ko Hipoteka Erregelamenduaren 304. artikulua eta horiekin bat datorren beste edozein manurena ere, Eliza katolikoak ondasunak immatrikulatzea ahalbidetu baitzuten, eliza-ziurtagiri administratiboaren bidez.

2. Diputatuen Kongresua premiatzea Konstituzioaren aurkako araudi horren babesean egindako immatrikulazioen erabateko deuseztasuna deklaratzeko beharrezkoak diren lege-erreformak onar ditza.

3. Espainiako Gobernuari eskatzea Estatuko prozedura bat sor dezala bidegabe immatrikulatutako ondasunak berrikusteko, ikertzeko eta, hala badagokio, berreskuratzeko, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundearen parte-hartzearekin, eta, hala badagokio, egoera leheneratzea edo kalte-galerak konpontzea.

4. Eliza Katolikoak 1946tik gaur egun arte immatrikulatutako ondasunen zerrenda zabaltzeko, arazteko eta haren publizitate osoa egiteko eta erregistroan behar bezala identifikatzeko eskatzea.

5. Mozio hau Espainiako Gobernuari, Gorte Nagusiei, Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraztea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Eleduna: Ainhoa Unzu Garate

11-26/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten du pentsioak errebalorizatze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten du pentsioak errebalorizatze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez premiatzen baita pentsioen balioa KPlaren arabera handitzea eta pertsona zaurgarrientzako ezker soziala babestea:

Eskatzen dugu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako Batzordean egin dadila mozio honen betetzearen jarraipena.

Zioen azalpena

Beste behin ere, eskuinak batu egin dira bloke homogeen batean, herritarrentzako oinarrizko gizarte-eskubideak zabaltzeari ezetz bozkatzeko: ez pentsioak handitzeari, LGSa mantentzeari, autonomoei laguntzeko neurriei, ezker sozialei eta pertsona zaurgarrientzako neurri fiskalei.

Beste behin ere, Espainiako eta Nafarroako eskuinak, Pedro Sánchezen gobernu ahultzeko

ahaleginean, politika erabilgarritik aldentu dira, eta bizkarra eman diete pentsiodunei eta pertsona zaurgarrienei.

Pentsioen balioa handitzeari uko egitea ez da gauza berria. 2020., 2021., 2022., 2023., 2024. eta 2025. urteetan egin zuten; azken urte horretan baina, aurka bozkatu ondoren aldeko botoa eman zuten, UPNK izan ezik, abstenitu egin baitzen. Lanean eta Gizarte Segurantzako sistema publikoan kotizatzen emandako urteen ondoren sortutako pentsioak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, 150.000 nafar baino gehiagoren pentsioen balioa handitzeari eta gizarte ezkerreko erasoaren aurrean, zeinaren helburua baita herritar zaurgarriena babestea, honako hau aurkeztu du:

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak erabat babesten du pentsioen balioa handitze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du pentsioen sistema publikoarekin duen konpromisoa, justizia sozialaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren adierazpen gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak arbuaitu egiten du pentsioen sistema publikoa eta gure herrialdeko pentsiodunen eskubide konstituzionalak privatizatze eta/edo ahultzeko eskuinen edozein ahalegin.

4. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazten die pertsona zaurgarrienei, eta konpromisoa adierazten du bizitza duina izateko baldintzak hobetzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak mozio hau helaraziko die Diputatuen Kongresuari, Espainiako Udallerri eta Probintzien Federazioari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Espainia osoko pentsiodunen elkartei.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Eleduna: Ainhoa Unzu Garate

11-26/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Gardentasunaren Atarian hilero ezagutaraz ditzan Foruzain-goak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gardentasunaren Atarian hilero ezagutaraz ditzan Foruzaingoak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, 2026ko otsailaren 5eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Gardentasuna eta gobernu ona edozein administrazio publiko demokratikoren funtsezko printzipioak dira. Herritarrek informazio publiko egiazkoa, osoa eta eguneratua eskuratzeko eskubidea dute, batez ere segurtasunari, bizikidetzari eta ongizateari zuzenean eragiten dieten gaiei dago-kienez; esate baterako, delinkuentziari eta Nafarroako segurtasun-politikei dagokienez.

Foruzaingoak 2024an eta 2025ean (2025eko azaroaren 24ra arte) atxilotuen jatorriari buruz egindako txostenak erakusten du polizia-kidego horrek dagoeneko bildu eta tratatzen dituela delitu estrategikoengatik (ondarearen aurkakoak, pertsonen aurkakoak eta sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkakoak) atxilotutakoei buruzko datu xehatuak, delitu-tipologiaren, polizia-eremuen, sexuaren, adin-tarteen eta jatorriaren arabera banakata. Datu horiek barne hartzen dituzte urte arteko

aldaketak, lurralde-kontzentrazioa (Iruña eta Tuteran dira intzidentzia-foku nagusiak) eta alarma sozial handieneko delitu-taldeak, hala nola indarkeriaz egindako lapurretak, ebasketak, ibilgailu-lapurretak, lesioak, sexu-erasoak edo hilketak.

Hala ere, txosten horiek ez dira aldiari aldiari argitaratzen Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren Atarian, eta horrek justifikatu gabeko opakutasuna sortzen du. Nafarrek ez dute zehatz-mehatz ezagutzen beren foru komunitateko delinkuentziaren errealitatea, delitu-egitate larrienen egileen jatorria barne. Publizitate falta horrek eztabaida informatua eragozten du, segurtasun-politikak ebaluatzea zailtzen du eta herritarrek erakundeeki-ko duten mesfidantza elikatzen du.

Legez kanpoko eta kontrolik gabeko immigrazio masiboaren testuinguruan, muga irekiko politikek eta kontrol eraginkorrik ezak sustatuta, korrelazio kezkarria ikusten da pertsonen iriste irregularren eta delitu jakin batzuen gorakadaren artean. Elkarte profesionalak, agenteen testigantzek eta beste autonomia-erkidego batzuetako datuek (Ertzaintzaren azken txostenek kasu) adierazten dute atzerritar jatorriko pertsonen gehiegizko presentzia dagoela delitu-tipologia jakin batzuetan, bereziki ebasketetan, indarkeriaz egindako lapurretetan, sexu-erasoetan eta ondarearen aurkako delituetan.

Nafarroan, delituak hiriguneetan kontzentrazeak, berrerortze anitzak gora egiteak eta segurtasun-gabeziaren pertzepzio gero eta handiagoak gardentasun handiena eskatzen dute antzeko patroirik dagoen jakiteko eta neurri egokiak hartzeko.

Datu horiek sistematikoki ezkutatzek urratu egiten ditu informazio publikoaren publizitate-printzipioa eta herritarrek beren ingurunearen errealitatea ezagutzeko duten eskubidea. Foruzaingoak atxilotutakoen kopurua eta jatorria hilero argitaratzek, delitu motaren arabera banakatuta, aukera emanen lieke nafarrei iritzi oinarritua osatzeko, erantzukizun politikoak eskatzeko eta segurtasun-politika eraginkoragoetan laguntzeko. Kontu-emate hori egin arte, immigrazioa kontrolik gabe sustatzen dutenei mesede egiten dien eta nafarren segurtasunari eta bizikidetzari kalte egiten dion opakutasuna betikotzen da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, eta, zehazki, Herrizaingo, Funtzio Publiko eta Justizia Departamentua premiatzen ditu hilero argitara ditzaten Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren Atarian Foruzaingoak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak, horiek delitu tipologiaren arabera ere banatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza premiatzen du argitara ditzan bere eskumeneko Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak, delitu-tipologiaren arabera banatuta.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/MOC-00020. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premia-tzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua”

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK ETA GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak eta Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua”.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

1989tik 2020ra arte, Espainiako Estatuko legeriak desgaitasuna duten pertsonen esterilizazio behartua edo baimendu gabea ahalbidetu du. 2005. eta 2016. urteen artean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, desgaitasuna zuten mila pertsona baino gehiago antzutu ziren epailearen erabakiz.

Lege-aurrerapen garrantzitsua izan zen desgaitasuna duten pertsonen esterilizazio behartua edo baimendu gabea delitu gisa tipifikatzea. Hala ere, ez zen nahikoa izan. Errealitate hori agerian jarri behar da biktimen errekonozimenduaren bidez, hura jasan zuten pertsonen erreparazioa eman behar zaie, eta behar bezalako kalte-ordaina.

Helburu horrekin, CERMI-Mujeres fundazioak zirriborro bat egin du, "desgaitasuna dela-eta judizialki ezinduta, esterilizazio behartuaren edo baimendu gabearen biktimei errekonozimendua, erreparazioa eta kalte-ordaina emateko legea" izenekoa.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Kongresuari eskatzen dio onar dezala, izapidetzeko, CERMI-Mujerekek egindako lege-testua, "Desgaitasuna dela-eta judizialki ezinduta, esterilizazio behartuaren edo baimendu gabearen biktimei errekonozimendua, erre-

parazioa eta kalte-ordaina emateko lege-proposamenaren/-proiektuaren testua" izenekoa.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentariak: Javier Arza Porras, María Arantzazu Biurrun Urpegui, Isabel Aramburu Bergua eta Carlos Guzmán Pérez

11-26/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Minbiziaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Minbiziaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin. Hartara, heldu den otsailaren 4an ekitaldi bat egingen du 12:15ean Parlamentuko atalondoan, Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartearekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak, Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarteak eskatzen duen bezala, arreta onkologiko gizatiarrago eta integralago baten alde egiten du.

3. Legebiltzarrak berdez argizatuko du bere fatxada otsailaren 4ko gauean.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko martxoaren 5eko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko martxoaren 5eko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko martxoaren 5eko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2026ko martxoaren 5eko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentu honetako Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharreko bi hautagai aukeratzeko prozesua hastea, Senatuak Konstituzioaren 159. artikuluari jarraikiz dagokionaren arabera bete beharreko Konstituzio Auzitegiko magistratuen lau postu hutsak bete ditzan. Onartutako arauetan, hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 5eko 15:00ak arte izanen zela ezarri zen.

Senatuko lehendakariak jakinarazi du Konstituzio Auzitegiko lau magistratu hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 4ko

18:00ak arte luzatuko dela autonomia-erkidegoetako legebiltzar guztietan. Lehengo epea 2026ko otsailaren 16an amaitzen zen.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42.1.9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Konstituzio Auzitegiko lau magistratu-postu huts betetzeko bi hautagai izendatzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2026ko apirilaren 16ko 15:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

